

# Rusiako eta Txinako egituraz zenbait gogoeta

Nekazaritza eta industria biak ertsiki loturik doazela aurrera genion lehenengo lanean. Industriadreza ez da nekazaritzaren bizkar egingo. Jokera onek beste zerbait sakonagoa adierazten du, ordea, Txinaren azkundera ez dagoela kapitala metatzearen men, alegia. Kapitalismoaren egituretan, teknika berritzeak eta asmatzeak kapitalaren metaketa eskatzen dute. Kapitalaren metatzea behar beharrezkoa da kapitalismoaren egituretan. Kapitalaren metatzeak agintzen du ekonomia erortzea edo abiadura zer eta nolako izango den.

Kapitalismoaren lege orri gizarte guzientzat beharrezko bezala azaldu nahi izan digute. Ekonomia guzirik orrik pasa beharren arkitzen direla adieraz nahi izan digute. Kapitalistak bakarrik ez, sozialistak berak ere orri erakutsi digute. Rusiako esperimentua, adibide bezala, amaika aldiz azaldu izan da. Begira, esan ohi izan zaigu, Rusiak berak ere asera batetan zerbait egin nahi izan zian baina amets batzuk besterik ez zituen, azkenean orrek ere besteak bezelaxe ekonomia orauak errezpetatu beharrean arkitu dit bere burua. Bide orri ez zioz aldagiterik; alfer alferrik duk, esango da.

Nik alfer alferrik denik ez dut uste ordea. Liburu bat bada, Txekoslovakian jakintsuek egindako liburu bat, igaz gaztelaniara itzulia «La Civilización en la Encrucijada» izen burutzat duelarik. Liburu orretan beste gauza baliagarrien ondoan onako au arkitzen da: ekonomia baten etorkizuna jakintzaren indartzean eta kualitatezko gauzen sendotzean gehiago datza kapitalaren ugartzean baino. Esaldi au, liburu orretan, datoz orniturik datorkigu. Ez da bait burua etorri eta esan duen gauza bat realitatean eta datoetan oinarriturik arkitzen den esaldia da baizik. Txinak bide orri eldu dio, dirudenez behintzat.

Areago oraindik, Txinak bide orri ez du gorako utzi. Nahiz eta atzeratua izan, erri batek asera aseratik ekin dakiokela adierazten digu. Lehen aipatu duen liburuan, lege orri, neurri batetara iritzi ondoren, industriadreza aurreneko pausok eman ondoren, ezarri zitekeela aitortzen zuten. Txinok asera aseratik ezarri daitekeela adierazten dute. Adierazi bakarrik ez egin ere egiten dute.

Teoria mailan bide orrek baditu bere sustraiak, sakonak gainera. Ekonomia orri egitura, produzioko indarrekin eta produzioko arremarekin osatzen dute. Bi orritan garrantzia zeinek duen eta produzioko indarrak zer diren erabakitzen datza arazoaren kaka.

Rusiako buruzagiek, realitatean, produzioko indarrei eman die aintzindaritzza edo lehenengotasuna. Produzioko indarrak anditu eta sendotu egin behar dute. Ori egin ezan ez dago sozialismorik diote Rusiako buruzagiek. Ekonomia indartsu bat eraiki behar da. Industria sendoa eratu behar da. Infrageitura tinko bat gabe sozialismoa egin daitekeela pentsatzea voluntarismo edo nahikerian erortzea besterik ez da, esango dute rusok eta beren kideok.

Esaldi auen minuari, itz gutxitan gauza adierazteko, ekonomikeria deitzen zaio. Ekonomiarren abiadurari gizarteko egitura guzirik itsatzea ez ezik morroi eta menpeko bihurtzea ere ba da ori. Bestalde, jokera ori talde baten agintaritzara irau erazteko eta erriarena galerazteko biderik egokiena da. Erriaren agintaritzaz galeratzen diela bistan dagoen gauza da.

Ikus dezagun pixka bat bederen historia. Ikus dezagun Leninen garaian nuzen zer gertatu zen. Gudua zela eta beste arrazoi askorengatik Rusia oso atzeratutik arkitzen zen. Zerbait egin beharra zegoen. Lantegiakotzuzendatzea espezializatei eskeintzea erabaki zuen nahiz eta askotan espezialista oriek sozialista ez izan. Espezialista oriei gainera soldata andiak emango zitzaizkien. Leninen uste ezinbestekoa zen bide orri el-tzea. «Sobietan agintaritzaren lehen eginkizunak» deitzen den liburuan onela dio: «Baina, dena den, industria andiaren arabera eraturik dagoen lona aurrera ateratzeko, ezparik gabe agintari bat bakarri orobat men itatea behar beharrezkoa da». Leku berean, pixka bat aurrerago, onela jarraitzen du: «Baina, gaur egun, iraultzak, berria, sendotzeko eta edatzeko eta sozialismoaren onerako ain zuzen, erria lantegiakotzuzendariaren naimen bakarraren esanetara egotea eskatzen du». Une arretarako iritzi au egokia zen ala ez erabakitzen ez naiz asiko ni. Ondoren kaxkarrak sortu dituela esaten ez naiz, ordea, beldurtzen.

Leninek berak ondo zekien eta esan ere esaten zuen erabaki oriek, sozialista ikuspegiz gauza aztertutik atzeratze bat zirela baina momentuan beharrezko gero sozialismoa eraiki nahi bazen behintzat. Baina, zer gertatu? Une utserako pentsatutako erabakiak aldi luzerako bihurtu direla. Une arretarako erabakiak, gaur egun, inoiz baino tinkoago dihardute. Lantegiakotzuzendatze ikadanik zituzten baino ahalmen gehiago dituzte gaur egun. Espezialisten eskubideak ere ikaragarriak dira. Erriaren indarra eta agintaritzza non gelditzen da? Aize presku artzen! Geuron buruak zuritzen ez da zaila. Izan ere, ekonomia aurrera atera behar da, produzioko indarrak sendotu behar dira, orretarako jende jakintsua behar da, teknikoak behar dira, erria ez dago preparatu eta beste onelako amaika esaldi entzun ohi da. Garai aretan teknikoak jatorriz burgesak izango ziren, gaurenguekoak ez dira jatorriz talde edo klase orretako izango baina berdin da, izan ere auker egiura berdinei eltzen die. Pertsonak aldatu dira baina egitura berdinak jarraitzen dute. Burgesia berria sortu da.

Bai burgesia berria sortu da eta au beldurrik gabe esaten dut. Baina gizarte sozialista batetan klaserik ba al da galdetuko du norbaitek? Galderari ez diot erantzun baina bai Rusiako edo URSSeko gizartearen klaseak direla esango. Klaseak dira arremen sozialak ez direlako aldatu. Eta sozialismoa kapitalismoagandik bereizten bada arremen sozialak diferentek direlako da eta ez beste arraziengatik. Planifikazio eta beste orrelako gauzak azalekoak dira. Kapitalismoa eta sozialismoa ez dira bereizten sozialismo izeneko estaduetan planifikazio gogor bat egiten delako eta kapitalismoa estaduetan orrelakorik ikusten ez delako. Planifikazio arremen sozialekin lotzen ez bada edo planifikazio arremen sozialak aldatzeko tresna bat ez bada kapitalismoa sendotzeko bide izango da. Eta ori da, ain, Rusan gertatzen. Eta ori da ain zuzen, Txinak egin nahi ez duena.

(Beste batez gehiago)  
ELUSTONDO

# SELFRIIDGE ETA VISHNU



Vishnu-ren mezua, kanta-dantzatan

Hotz-zen Urtarrileko goiz goibel lanotsu hartan. Baina Oxford Street-eko Salfoki nagusietan ez zen liferentziarik ageri: gora eta behe-rra pilatzen ziren jende multzoak, eta bi estalaitako autobus gorri ezagunek etengabe kurritzen zuten Londresko kale koloretua. Bruse-lako Rue Neuve, Bordaleko Ste. Cathérine edo Antwerpen-go Meir bezala, Londresko Oxford Street kontsumo-zibilizazioaren ikurtzat har daiteke: Selfridge magasin gaitze-tik azken dendaratxaraino helburu bak- bat bazterretan: nola gehiago sal.

Eta horretan nintzela, hastapene-tan izuti, gero eta ozenago, joan-etorriaren orroa etengabeen piskan- naka gailentzen ari, txilin hotsa ent- zuten nuen Ekaldetik. Gazte talde bat zetorren, hamar bat neska ni- tutek osatu. Neskek paperak eta liburuskak eskaintzen zituzten. Mu- tilak, berri, dantzak eta kantari ze- tozen. Burua soil zeramaten, Sai- gonoko bonzok herriko egin duten itxuran gutxi gora-behera: eta de- nengan, buruaren atzekaldean zil- tzilik, txintxosta filimio gisa, ile- mordoxka bat ageri zen aldean jazu- kari, Gerrien parean loturik, eta- baitzar harrigarriak zekazkiten; eta- hasiaren lurrian jaramonik egin gabe, Indiako erdi-soineko laranj; ez bestez jantzirik, aldi elkiten zi- oten beren kanta-dantza azkengabe- ari.

Ikusleei ematen zieten kaseto bi- txia hartu nuen. Letra handitan: «Back to Godhead». Eta txikiago- tan: «The Magazine of the Hare Krishna Movement» (n.º 47!). Nes- ka gonaluze bat ondora zitzaidan, eta irribarez tarjetatxo bat eman zidan: «You are cordially invited to the Radha Krishna Temple-7, Bury Place - Bloomsbury, W.C.1, Lon- don».

Txundituta gelditu nintzen. Sel- fridge-enetik metro batzura. Vis- hnu-ren mezua neukan eskutian! Gazte haien barne-aurdial! Eta taldea dantza, eta dantza, eta tai- gabe dantza; eta kanta bera ari, nik uste:

«Hare Krishna,  
«Hare Krishna,  
Krishna, Krishna,  
Hare Hare».

Arthur Köstler irakurri ondoren, nekez sinets daiteke India sinest- unen zoragarria. Baina gazte haiek ikusita, Asiako India egiazkoen ze- haro bederen sinesterik ez badago ere, gaur barruan daramagun India horretan sinetsi nuen. Eta gazte haien mezu kementsuak nigan ol- hartzen harrigarriak lortzen zituela errepertu nuen. «Retour du refou- lé» ote? Ez dakit. Baina gazte bu- rusoil laranjatsua haiek goiz hartan ematen zuten lekukotasunak, bar- ne-mulnetañ ikutzen zuten. Neska- mutil haiek dantzan eta kantuz ari, kontsumoaren erdigunean bertan esaten baitzieten «utikan» kontsu- mo zibilizazio harropuz huts honi.

Beti miretsi dituzt egiazko «pro- vo»ak, beren buruz «provo» dire- nak, alegia: «correcto»ak, aprobe- txategiak, modakoiak, eta «haizeak nora zapiak hara» moduko gizonak betidanik ere mespretxatu eta mes- pretxatzen ditudan bezala. Ez ditut kamaleoiak maite! Oxford Street-eko talde hura, horretara, oso go- goiko nuen. Aitor dut.

Gure segurantz giro ustelean, egiazko ostiok irudituz zitzaizkien aldizkariaren ekarriak. Azalean, per- laz eta pitiz ederturik (josirik ho-

be!) heriotzatik libratzen duen «so- ma» famatua neskatila bat txirla batetarik edaten ari. Liburuskaren barruan, berri, Vishnuisten bildu- ma txiki bat: irudi batetan Krishna xirula jotzen ari; anitz fototan age- ri, bestalde, «His Divine Grace A.C. Bhaktivedanta Swami Prabhupada» jauna, gaur Krishnaren lekuko na- gusia ageri denez; orrialde oso bat «Yoga» eta «Bhagavad-Gita» re- n- zen argitaraketen berri ematen...

Hindutar ebanjelioa den «Bhā- vad-Gita»-ren aipamenak topatu ni- tuen eruz, han eta hemen; eta de- nok irudituz zitzaizkidan «mini-skirt» eta takoi nabarmenen Londresen (eta Donostian eta Iruñen) proba- kazio eta kitzika huts: «Krishna Mu- gimendua Pertsona Absolutuaren ZIENTZI-hurbilera bat da... Alima- leen EKONOMI-beharrak gureak be- zain inportanteak dira... Prestuki jokatu beharra dago, HURRENGO BIZIAN jaitza on bat izateko... Krishna berbera mintzatu zala gi- zonarri BIBLIAN eta Koranen...» Eta abar.

Gaurko teknikeriaren salaketa («maya»-ren ekarle delako, ILLUA, ALIENAZIO ekarle delako) aurkitu nuen; eta hinduista heterodoto baina gutxi aparta izan zen Gan- dhiz oroitut nintzen; bat hartaz, bai gaurko Vinoba Bhave harrigarria; bai hindutar izpiritu-gidari gutziek, Vedaren eraginaz, gaurte arte munduari eta zibilizazio teknikoari atxiki dioten mespretxu osoaz.

Batzutan Marco Aurelioz oroit

nintzen: «Egintzaz beraz ardura ha- di —zion Ekrinak, Vishnu-ren az- ken gizakundeak— eta ez behin ere egintza horren bitartez izan dituz- kean fruituez...»

Eta «Anti-Düring» gehiegi, eta «Bhāgavad-Gita» gutxiegi irakur- tzen direla ulertu nuen; eta hone- tan ez dagoela zer pozturik, ez zer loriatuturik. Gizona eta gizonaren egarriak ez baitira atzo agertu. Eta gaurko hazkurri eta edariek okegin arte higunduko baitute laster: Sei Krishna-biltoki Alemanian, bost Bre- tainia Nagusian, lau Frantzia, bat Belgikan, bat Holandan, dozenaka Ameriketako Erresuma Elkartu- etan...

Oxford Street-eko gazte-multzo hura, horrela, geroaren aintzindari ar- gitsua irudituz zitzaidan, eta ez ihar- tutako mundu zaharkote baten az- ke arrastoa. «Sanātana Dharma» za- harra xehetasunetan xuxena ez ba- da ere, egia da funtsan; eta hu- rrengo idel-mugimenduen iragarle batzu ezagutu nituela segur izan nintzen.

Gaurko filosofia batzutan, alde- rantziz, funtsan ezurra direla esan behar da, nahiz xehetasunetan egia izan.

Oraindik ere horrela, txilnak orroan gailen eta dantza etenga- bean, talde hura neure buruan go- goratzen dudalarik, sinbolo bat iku- si nuela iruditzen zait: gazte haiek ez xihoozen Selfridge-ra, baina Sel- fridge-tik itzultzen baiz.

LARRESORO

## ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK  
URALITA ORDEZKARIA

<p><b>TOLOSA</b> Urrutizkiñak: Etxekoa 65 19 60 Landolako 65 19 33</p>	<p><b>URRETXUA</b> Urrutizkiñak Landolako 67 17 84</p>
--	--

**ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn**

## Z Merkenak

### Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin ber du baserriar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzauk, Oiek guztiak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

# FANDERIA

# ERRENTERI

## JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4
DONOSTIA